ESP. KODEA.	**2025PROB0007**
ESPEDIENTEA	**BEASAINGO HAINBAT URBANIZAZIO ERALDAKETA BURUTZEKO OBRAK KONTRATATZEA**
TITULARRA	**BEASAINGO UDALA-LURRALDE SAILA**
TOKIA	**BEASAIN, GIPUZKOA**

BEASAINGO HAINBAT URBANIZAZIO ERALDAKETA BURUTZEKO OBRAK KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIO-TXOSTENA

9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen 28. artikuluak jasotzen duenarekin bat, aipatu kontratuaren sail sustatzailearen arduradun politikoak (Hirigintza), TXOSTEN hau burutzen du:

Lizitazioaren bidez bete behar da proiektatutako kontratua:, **BEASAINGO HAINBAT URBANIZAZIO ERALDAKETA BURUTZEKO** proiektua idatzi da.

1. **Kontratuaren xedea:** izenburuan ezarritakoa. Kontratua ez dugu sortatan banatu obra unitate funtzional zatiezina delako eta ezin delako zatika gauzatu. Izan ere, 99. artikuluko 3b) puntuan adierazitako moduan, kontratuaren xede diren prestazioak bereizteak kontratua teknikoki behar bezala gauzatzea eragotziko luke.

2. **Lizitazio prozedura aukeratzea :** SPKL-ko 131.2 artikuluak honakoa dio: kontratazio organoek normalean prozedura irekia edo murriztua erabiliko dute. Kasu honetan prozedura ireki bidez esleituko da, ez baitago kaudimen gehigarri bat eskatzeko edo kontratuaren atalen bat negoziatzeko arrazoirik. Ondorioz, edozein enpresak kontratazioan parte har dezake, betiere bere kontratatzeko gaitasuna eta kontratuaren xedea burutzeko eskatzen diren kaudimena eta gaikuntzak egiaztatzen baditu.

3. **Epea**: 16 aste guztira, obrak egiteko.

4. **Prozedura eta izapidetzea: irekia sinplifikatua, ez arau armonizatupeko kontratua eta izapidetze arrunta.**
   Hautaketa arrazoiak:
   - Prezioa: kontratuaren balio zenbatetsia 387.460,99 € **BEZik gabe**
   - Kontratu motaren hautaketa:
     Aurreikusitako lanak udaran burutzea beharrezkoa da, oporraldiak kontuan izanda udalerrian obra lanak eragin gutxiena sor dezaketen epealdia izateagatik. Arrazoi horregatik prozedura sinplifikatua hautatzen da.

ESKU7f8d1b79-d95b-43fb-a1ff-069ded3e1200

9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuenaren 13. artikuluak obra motako kontratuak Legeko I Eranskinean zehazten direla adierazten da, eta obra mota hau bertan atxikita dago.

Ondorioz, obra kontratu baten aurrean gaudela ondorioztatzen da.

- Aukeratutako esleipen irizpideak:

- Formulen aplikazio bidezko irizpideak: %75
- Automatikoki baloratu ezin diren baloraketa irizpideak: %25.

5. **Lizitazio elektronikoa:** Bai, Euskadiko kontratazio-plataformaren barruan, kontratatzailearen profila.

6. **Esleipen irizpideak:** Prezio eta berme epe erlazio onenean oinarritutako irizpideak erabilita burutuko da kontratuaren esleipena.

6.1. Automatikoki ebaluatu ezin diren balorazio-irizpideak (25 puntu)

<u>Automatikoki ebaluatu ezin diren balorazio-irizpideak (25 puntu)</u>

- Obrako sarbide eta irteeren, okupatutako azaleren eta biltegiratzeko eremuen azterketa eta zehazpena (10 puntu).
  - Obrarako sarbideak, obrak hartzen dituen azalerak eta materialak biltzeko aurreikusitako eremuak aztertu eta definitu beharko dira. Proposamenaren egokitasuna, argitasuna eta definizio-maila, kontuan hartutakoak eta planteatutako proposamenaren bideragarritasuna baloratuko dira, obraren ezaugarrien eta berezitasunen arabera.
  - Fitxategi bat aurkeztuko da PDF formatuan (E 1/200) eta DWG formatuan. Obran esku hartzen duten elementu guztiak grafiatu beharko dira: sarbideak, hesiak, etxolen kokapena, metaketa-eremuak, etab.

- Obra lanak sor ditzaketen afekzioen azterketa eta hauek mugatzeko hartu beharreko neurrien proposamenak (7,5 puntu).

  - Obrak eragindako kalteen azterketa egin beharko da eta horiek aldatzeko neurri zuzentzaileak, antolamendukoak eta planifikaziokoak aurkeztu beharko dira.
  - Antzemandako eraginen norainokoa eta garrantzia baloratuko dira, baita aurkeztutako neurri zuzentzaileena ere.

- Obra lanen plangintza eta antolaketa (7,5 puntu).
  - Proposamenaren egokitasuna eta obraren plangintzaren eta antolaketaren justifikazioa baloratuko dira.
  - Asteka banakatutako PDF fitxategi bat aurkeztuko da, proposatutako plangintza zehaztuz eta obrako ataza bakoitza definituz, bai eta horren zeregin kritikoak ere.

ESKU7f8d1b79-d95b-43fb-a1ff-069ded3e1200

- Obraren plangintza ekonomikoa aurkeztuko da hilabetetan eta ehunekoetan, lizitazio-prezioa oinarritzat hartuta.

Azterketa eta ulermena errazteko, aurkeztutako dokumentazioak gehienez 5 A4 orri izango ditu, bi aldeetatik, aurkibiak kontuan hartu gabe, Arial 10 letra-tipoarekin, eta lerroartea tartekatuta, 1,5 lerro. Indize bakarra eta orrikatua izango du. PDF fitxategiek zehaztutako orrialde gehienezko kopuruan batuko dira. Euskarri elektronikoan aurkeztuko da (PDF fitxategi bakarra).

6.2. Formula automatikoen bidez neur daitezkeen irizpideak. 75 puntu.

6.2.1. Eskaintza ekonomikoa. 65 puntu.

Puntuazioa ezartzeko, honela banatuko da da:

0 puntu emango zaizkio lizitazioaren oinarrizko aurrekontua berdintzen duen eskaintzari, eta 2 puntu gehituko zaizkio % 1eko beherapen bakoitzeko; gehienez 100 puntu emango dira, beherapenen batek % 50 gainditu ezean, orduan 100 puntu emango baitzaizkio, eta gainerakoa interpolatu egingo da.

Bmax <= 50% >>> P = 200 x B
Bmax > 50% >>> P = 100 x B / Bmax

Izanik,

P: Baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa.

B: Baja = 1 - (Eskainitako prezioa) / (Lizitazioaren gehieneko aurrekontua)

Bmax: Onartutako gehienezko beherapena.

Horrela lortutako emaitzari atal ekonomiko honek puntu kopuru osoan duen portzentajea aplikatuko zaio.

Formula hori hautatu da ez duelako saturazio-atalaserik ezartzen, ez dielako punturik ematen lizitazio-mota berdintzen duten eskaintzei, ez delako lauegia, eta ez duelako puntuazio-alde handiegirik eskaintzen baja-diferentzia txikiei dagokienez.

6.2.2. Pleguan ezarritako berme epea baino luzeagoa: 10 puntu (9/2017 Legearen 243.3. artikulua).

Dagokion ondorioetarako,

Lurralde Saileko Zerbitzu Burua

EKS | CSV: ESKU7f8d1b79-d95b-43fb-a1ff-069ded3e1200
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2025PROB0007-Justifikazio txostena/Informe justificativo (BEASAINGO UDALA)

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:

Beasaingo udala

Eskisabel Del Bosque, Jon

Lurralde Saileko Zerbitzuburua
Jefe de Servicios del Área de Territorio

Data / Fecha: 2025/05/19 11:36:44